

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**

Mankomunitateko udalerrietan erroldatutako langabe gazteak kontratatze-ko dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri-arautzaileak, «Gaztedi Bizkaia Txorierrri-Erandio 2018» deialdiaren esparruan.

Ekainaren 13ko Mankomunitateburuaren 369/201 Dekretuaren bidez onartu dira Mankomunitateko udalerrietan erroldatutako langabe gazteak kontratatze-ko dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarri-arautzaileak, hain zuzen ere eranskinaren arabekoak.

Derion, 2019ko azaroaren 5an. Mankomunitateburua eskuordetzan, Ikerne Zuluaga Zamalloa

**TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO GAZTE LANGABEAK
KONTRATATZEKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK****1. Xedea**

Laguntza hauen xedea babes ekonomikoa ematea da 30 urtera bitarteko gazteak kontratatzeke, betiere Txorierriko Udalen Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten udal-letxeetako batean erroldatuta badaude eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena eman badute lan-eskatzaille moduan.

2. Erakunde onuradunak

Kontratazioa sustatzeko laguntza hauen onuradunak izan daitezke edozein forma juridikoko enpresa, komertzio eta profesionala, baita irabazi-asmorik gabe erakundeak, elkarteak eta fundazioak ere.

Ezingo dituzte laguntzak jaso honako hauek:

- Administrazio publikoak, horiekin lotutako edo horien menpeko sozietate publikoak eta erakundeak.
- Enplegu-zentro bereziak.
- Aldi baterako laneko enpresak, langileak aldi batean beste enpresei lagatzeko kontratatzen badituzte.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. artikuluan zehaztutako baldintzen bat betetzen ez duten enpresa edo erakunde eskatzailleak.

Oinarri hauetan aurreikusitako kontratazio-laguntzak eskuratu nahi dituzten enpresak legearen arabera osatuta egon beharko dira.

Erakunde bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du kontratazio-laguntzak eskuratzeko.

Onuradunek laguntza-programan parte hartzen ari diren bitartean bete beharko dituzte baldintza horiek guztiak.

3. Kontratazioetarako baldintzak

- a) Laguntza jaso ahal izateko, kontratazioek honako baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Kontratazioaren unean, gazteak honako baldintzak bete beharko ditu:
 - a.1) Kontratazioaren unean 18 eta 30 urte bitartean izan beharko ditu.
 - a.2) Langabezian egoteaz gain, izena emanda egon behar du Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille moduan. Gainera, ezingo du altan egon Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko langile moduan edo Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren Enplegu-eskatzailatzat jotzen dira Lan Eskaeraren Alta eta Berritze Dokumentuarekin (LEABD) enplegu-eskatzaille moduan altan daudela egiaztatzen duten pertsonak.
 - a.3) Honako udalerrri hauetako batean erroldatuta egotea: Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama edo Larrabetzu.
 - Ez dute laguntzarik jasoko ezkontidearekin, ahaideekin edo gainerako senideekin egindako kontratazioek, kontratatuak bigarren gradura arteko ahaide-tasuna badu odolaren, ezkontza-ahaidetasunaren edo adopzioaren bitartez, hori barne, enpresariarekin edo enpresaren kontrola dutenekin, zuzendari-tza-karguak dituztenekin edo sozietatearen forma juridikoa osatzen duten erakundeetako administrazio-organoetako kideekin.
 - Kontratuak 3 hilabeteko iraupena izango dute gutxienez.
 - Kontratuak edozein kontratazio-modalitatetan formalizatu ahalko dira, praktika- edo ikaskuntza-kontratuak izan ezik.
 - Kontratuak lanaldiaren %100ekoak izango dira.



- Kontratazioak enplegu garbia sortu beharko du kontratatutako pertsona enpresan sartu aurreko 3 hilabeteetan zegoen batezbesteko plantillari begira.
 - Soilik 2019ko urtarrilaren 1etik 2019eko abenduaren 20ra bitarteko formalizazio-data duten kontratazioek jaso ahal izango dute laguntza.
- b) Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta enpresa ezberdinek eskaera egin, diruz lagundu daiteken epearen barruan.
- c) Kontratazioak dirulaguntzaren amaiera-datatik harago luzatu daitezke, baina epe horiei dagozkien kostuak ezingo dira diruz lagundu.

4. Aurrekontu-kreditua, finantzaketa, zenbatekoa eta ordainketa

Emango den laguntzaren guztirako zenbatekoa 10.200 eurokoa izango da.

Laguntza bakoitzaren zenbatekoa 3.400 eurokoa izango da kontratatutako pertsonako. Laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du gainditu soldata-kostuen %75, kontratu amaierako indemnitzazioak eta kontratatutako pertsonaren enpresaren Gizarte Segurantzarenak barne.

Laguntzen ordainketa epe bakarrean egingo da, enpresa onuradunak hori betetzen duela egiaztatu ostean.

Lan-kontratuak diruz lagundutako epea amaitu baino lehenago eteten badira, ko-brantza-eskubidea galduko da.

5. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak ez dira bateragarriak beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek kontzeptu berdinarekin eta xede berdinerako ematen dituztenekin.

6. Eskaerak aurkeztea

Kontratatu beharreko pertsona bakoitzeko eskaera bat aurkeztu eta dokumentazioa atxiki beharko da.

Laguntza jasotzeko eskaera, zeinetan enpresak adierazi beharko duen oinarri haue-tan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela, deialdian zehaztutako epearen barruan aurkeztu beharko da, Behargintza Txorierriren bulegoan (Txorierri Etorbidea 46, 13A, Sondika), astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

Eskaerak I. eranskineko ereduaren arabera egingo dira, eta honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, nahitaez:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Ordezkarri legalaren NANaren kopia, eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordaindu direla dioen ziurtagiria.
- Enplegu garbia sortzeko erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).
- Beste erakunde baten eskutik kontzeptu berdinekin eta xede berdinerako laguntzak jaso ez direla dioen erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).

Eskatzaileak eskaeran sartutako daturen bat faltsutuko balu, dagokion zehapen-erregimena ezarri ahal izango zaio.

7. Esleipen-irizpideak

Dirulaguntzaren esleipena norgehiagoka-erregimenean egingo da, honako irizpide objektibo eta haztapen hauei jarraikiz:

- 1 puntu (1), enpresa kontratatzailea edo enpresa kontratatzailearen langunea Txorierri baldin badago.
- 1 puntu (1), kontratatutako pertsona emakumea bada.
- 1 puntu (1), kontratatutako pertsonak 25 urte baino gutxiago baditu.



Azken emaitza hautagaiek lehiaketa-fasean eskuratutako puntuen batuketa izango da. Berdinketa egongo balitz, honakoa izango da berdinketa hausteko lehen irizpidea: lehenetasuna izango dute emakumeak kontratatzeke hautagaitzek. Berdinketak jarraituko balu, lehenetasuna izango dute 25 urte azpiko pertsonak kontratatzeke hautagaitzek.

8. Esleipen-prozedura

Hemen araututako dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bitartez esleituko dira, objektibotasunaren, gardentasunaren, berdintasunaren eta publizitatearen printzipioen arabera, betiere.

Esleipen-prozedura ofizios abiaraziko du Txorierriko Mankomunitateak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, aurkeztutako eskaerak eta dokumentuak aztertzeko aurretiazko fase bat abiaraziko du Egaz Txorierri, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera.

Eskaerak ez badira osorik aurkezten edo errekeritutako dokumentazio guztia aurkezten ez bada, pertsona edo erakunde interesdunari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzendu edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan. Horren harira, espresuki jakinaraziko zaio halakorik ez egitekotan, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ebazpena eman eta gero.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Idazkaritzari igorriko zaizkio espediente osoa eta eskatzaileen zerrenda jasoko duen txostena, zeinetan 7. puntuan ezarritakoa betez egindako jarduketak eta haien emaitzak adieraziko diren. Egindako jarduketak eta jakinarazitako informazioa aztertu eta gero, idazkaritzak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo dio ebazpen-organoari. Interesdunei ere helarazi beharko zaie proposamen hori, eta hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko. Alabaina, entzunaldi-izapide hori ez da egingo interesdunek aurkeztutakoez bestelako egitaterik, alegaziorik eta probarik ez dagoenean edo aintzat hartzen ez direnean. Kasu horretan, behin betikoa izango da ebazpen-proposamena. Aurkeztutako alegazioak aztertu eta gero, behin betiko ebazpen-proposamena egingo zaio ebazpen-organoari, hala bada-gokio.

9. Ebazpena

Txorierriko Mankomunitateak ebazpena eman eta arrazoitu egingo du, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Ebazpenean dirulaguntzaren onuradunak eta dirulaguntzarik jaso ez dutenak jasoko dira. Ezeztapenak behar bezala arrazoituta egon beharko dira; onuradunen kasuan, berriz, argi eta garbi adierazi beharko da dirulaguntzen xedea eta zenbatekoa.

Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz emango da.

10. Justifikazioa eta kobrantza-eskubidea galtzea

Dirulaguntza dagokion xederako erabili dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu dirulaguntzaren onuradunak kontratua bukatu edo dirulaguntzaren esleipena egin eta hilabeteko epean, dagokionaren arabera. Azken hori esleipen-egunean kontratua bukatuta dagoen kasuetan bakarrik izango da aplikagarria. Edozein kasutan, egiaztagirak aurkezteko azken eguna 2020ko apirilaren 20a izango da.

Aurkeztutako agiriak aztertu eta gero, ebazpen-organoari bere betebeharrak aintzatesteko eta dagozkion zenbatekoak ordaintzeko proposamena egingo zaio. Halaber, oinarri hauetan ezarritako xedea betetzen dela egiaztatzeke beharrezkoak diren ikuskarritza eta kontrol-ekintzak ere eskatu ahal izango dira, eta onuradunak derrigortuta egongo dira jarraipen- eta kontrol-jarduketa horiek errazteko kolaboratzera. Xedea bete dela ez justifikatzea, behar beste ez justifikatzea edo Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kausaren bat betetzeak dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea ekarriko du berekin.



Kontratuak diruz lagundutako epea bukatu baino lehen eteten badira, galdu egingo da esleitutako dirulaguntza kobratzeko edo bueltan jasotzeko eskubidea, salbu eta etete hori erakunde kontratatzailearen borondatez egin ez bada. Kasu horretan, lan-kontratuaren benetako iraupenaren arabera proportzioan murriztuko da dirulaguntza. Dirulaguntza kobratzeko eskubidearen galera Dirulaguntzen Lege Orokorraren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera deklaratu da.

Aurkeztu beharreko agiriak

Erakunde interesdunek oinarri hauetako VII. eranskineko ereduaren bitartez justifikatu beharko dute egindako kontratazioa, eta dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia.
- Kontraturiko pertsonaren errolda-ziurtagiria.
- Diru-laguntza jasoko duen kontratuaren kopia.
- Emandako laguntza justifikatzeko nominak eta RNT eta RLC agiriak.
- Zinpeko deklarazioa, adierazten duena kontraturiko pertsona ez dela enpresariarekin edo sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea edo ahaidea (IV. eranskina).
- Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak bestelako finantzaziorik ez duela egiaztatzen duen agiria (V. eranskina).
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan egon den plantillaren batezbestekoaren egiaztatzea, GSDOk emandakoa.
- Kontratazioaren egunean bertan egon den batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDNk emandakoa.

Halaber, deialdiaren ebazpena Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) 20. artikulua-ren eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen Dekretuaren (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa) 30. artikulua-ren arabera.



I. ERANSKINA

ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERA-INSTANTZIAREN EREDUA

«ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERA-INSTANTZIA» TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO
LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAN-2019. URTEA

.....
..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere
izenean edo enpresaren
(IFK:; egoitza soziala:
.....; PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:
.....) ordezkari gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak).

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

- I. Gazte-enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan (Gaztedi Programa) kontratatzekeo laguntza-proiektuen oinarri arautzaile berrien edukiaren berri izan duela.
- II. Ordezkatzen duen erakundeak oinarriek eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela, eta horietan adierazitako betebeharrak guztiak beren-beregi onartzen dituela.
- III. Oinarriari heldu nahi diela eginiko kontratazioa diruz laguntzeko; hauek dira ezaugarriak:
 - Lanpostua(1):
 - Kontratu mota:
 - Hasiera-data:
 - Kontratuaren iraupena:.....
 - Jarduera-sektorea:

(1) Adierazitako lanpostuak bat etorri behar du lan-kontratuan jasotako lanpostuarekin.

«Enpresaren partaidetzarako eskaera-instantzia» honekin batera, honako agiri hauek aurkezten dira:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- Enplegu garbia sortzeko betekizunak betetzen direla adierazteko erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina).
- Kontzeptu beragatik edo xede bererako bestelako dirulaguntza edo laguntzarik jasotzen ez dela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



II. ERANSKINA

ENPLEGU GARBIA SORTZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

ENPLEGU GARBIA SORTZEKO BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, «ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERA-INSTANTZIAN» AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOEI DAGOKIENEZ, TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN BARRUAN-2019. URTEA

.....
..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak).

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Oinarri hauetan araututako laguntzen xede den kontratazioak enplegu garbia sortzen duela enpresaren batez besteko plantilla osoari dagokionez, diruz laguntzen den kontratua duten pertsonak enpresan sartu aurreko 3 hilabeteetan.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



III. ERANSKINA

**BESTELAKO DIRULAGUNTZARIK JASOTZEN EZ DELA ADIERAZTEKO
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

BESTE ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDE PUBLIKO EDO PRIBATU BATEN ESKUTIK KONTZEPTU BERAGATIK EDO XEDE BERERAKO BESTELAKO DIRULAGUNTZA EDO LAGUNTZARIK JASOTZEN EZ DELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, «ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERA-INSTANTZIAN» AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOEI DAGOKIENEZ, TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN BARRUAN-2019. URTEA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak).

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Oinarri hauetan araututako laguntzen xede den kontratazioak kontzeptu eta xede berarengatik erakunde eskatzaileak aurkeztutako laguntza-eskaera bakarra dakarrela.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



IV. ERANSKINA

AHAIDETASUN EZARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

AHAIDETASUN EZAREN BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, «ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERA-INSTANTZIAN» AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOEI DAGOKIENEZ, TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN BARRUAN-2019. URTEA

.....
..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo enpresaren (IFK:; egoitza soziala:;; PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi ordezkari-tza-ahalmenak).

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Oinarrietan araututako laguntzen xede den kontratua duen pertsona ez dela enpresariaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza-karguak dituztenen edo enpresa eskatzailearen adminis-trazio-organoetako kideen ezkontideak edo oinordekoak, eta ez dutela horiekin bestelako familia- edo ahaidetasun-loturarik, izan odolkidetasunez zein afinitatez, bigarren mailara arte (hori barne); eta era berean, ez direla hasieran adierazitako horiek ere.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



V. ERANSKINA

**GAINFINANTZAKETARIK EZ DAGOELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENAREN EREDUA**

GAINFINANTZAKETARIK EZ DAGOELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, «ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO
ESKAERA-INSTANTZIAN» AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOEI DAGOKIENEZ, TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO
LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN BARRUAN-2019. URTEA

.....
..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere
izenean edo enpresaren
(IFK:; egoitza soziala:
.....; PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:
.....) ordezkari gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak).

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

«Enpresaren partaidetzarako eskaera-instantzian» jasotako kontratazioari dagokionez, ez dagoela
eta ez dela egongo gainfinantzaketarik, inolako arrazoiengatik, eta konpromisoa hartzen duela bera-
riaz eta idatziz adierazteko adierazpen honen xede diren alderdiekin lotura duen edozein gorabehera.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VI. ERANSKINA
HIRUGARRENEI ALTA EMATEKO FITXAREN EREDUA

BANKU-KONTUAREN ZENBAKIAREN TITULARTASUNA JUSTIFIKATZEKO HIRUGARRENEI ALTA EMATEKO FITXA «ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERA-INSTANTZIAN» AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOEI DAGOKIENEZ, TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN BARRUAN-2019. URTEA

Hartzekodunaren agiria
Ficha Acreedor

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora
Izena eta deitura bi edo Sozietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social
Helbidea / Domicilio
Herria / Población
Prointzia / Provincia
PK / CP
NAN - IFK / DNI - CIF
Telefonoa / Teléfono
Faxa / Fax
e-mail
(ugar) (sifio) (mes) (dia)
n, 20 (e)ko k
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura, / Firma de la parte acreedora o apoderada

Banka helbideratzeak / Domiciliaciones bancarias
1 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zargaren sarrera edo itzulketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea: /
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:
IBAN kodea / Código IBAN
E S
Herria / Población
Prointzia / Provincia
PK / CP
(ugar) (sifio) (mes) (dia)
n, 20 (e)ko k
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria
2 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zargaren sarrera edo itzulketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea: /
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:
IBAN kodea / Código IBAN
E S
Herria / Población
Prointzia / Provincia
PK / CP
(ugar) (sifio) (mes) (dia)
n, 20 (e)ko k
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria

Agiri hau alta edo aldarazpenik dagoenetan bakarrik erabiliko da. / Este documento se utilizará únicamente en los casos de alta o modificación.
Nahituen edo IFK-en fotokopia erantsi behar da. / Dábe adjuntarse fotocopia del DNI o en su caso del CIF.
Bi kontu baino gehiago duen hartzekoduna izatekotan, erantsi beste inprimaki bat. / Caso de parte acreedora con más de dos cuentas añadir otro impreso.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten ditu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko diregula, ondoren, erabili ahal izateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstas por la Ley.

2014

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VII. ERANSKINA

AMAIERAKO MEMORIAREN EREDUA

ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERAREN AMAIERAKO MEMORIA, TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO
LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN BARRUAN-2019. URTEA

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VIII. ERANSKINA

AGIRI OSAGARRIAK AURKEZTEKO EREDUA

AGIRI OSAGARRIAK AURKEZTEA «ENPRESAREN PARTAIDETZARAKO ESKAERA-INSTANTZIAN», TXORIERRIKO ESKUALDEAN ERROLDATUTAKO LANGABE GAZTEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN BARRUAN-2019. URTEA

.....
..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak).

Agiri hauek aurkeztu ditu:

- Kontratutako pertsonaren NANaren kopia.
- Kontratutako pertsonaren errolda-ziurtagiria.
- Laguntzaren xede den kontratuaren kopia.
- Emandako laguntza justifikatzeko nominak eta RNT eta RLT ereduak.
- Zinpeko adierazpena, adierazteko kontratatutako pertsona ez dela enpresariaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza-karguak dituztenen edo enpresa eskatzailearen administrazio-organoetako kideen ezkontideak edo oinordekoak, eta ez dutela horiekin bestelako familia- edo ahaidetasun-loturarik, izan odolkidetasunez zein afinitatez, bigarren mailara arte (hori barne). (IV. eranskina).
- Dirulaguntzaren xede den kontratazioan gainfinantzaketarik ez dagoela egiaztatzeke ziurtagiria (V. eranskina).
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- GSDNk igorritako ziurtagiria, kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetako batez besteko plantillari buruz.
- GSDNk igorritako ziurtagiria, kontratazioaren eguneko batez besteko plantillari buruz.
- Baku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna justifikatzeko hirugarrenei alta emateko fitxa (VI. eranskina).
- Memoria txantilo ofizialean (VII. eranskina).

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua